ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko urtarrilaren 4a, ostirala • 2 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

25/2018 Foru Araua, abenduaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundien arteko hitzarmena berresteko, Ticket Bai proiektua garatzeko (fakturatzeko eta kobratzeko sistemak kontrolatzeko tresnak aztertzeko eta ezartzeko proiektua)

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko abenduaren 19an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

25/2018 Foru Araua, abenduaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundien arteko hitzarmena berresteko, Ticket Bai proiektua garatzeko (fakturatzeko eta kobratzeko sistemak kontrolatzeko tresnak aztertzeko eta ezartzeko proiektua).

ZIOEN AZALPENA

I. Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 48. artikuluan ezartzen duenaren arabera, administrazio publikoek, zeinek bere eskumenen barruan, hitzarmenak sinatu ahalko dituzte zuzenbide publikoko eta pribatuko subjektuekin, eta hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezen lagundu.

II. Zerga iruzurrak –arauak ez betetzea zergen ordainketari itzuri egiteko– zuzeneko eragina dauka sarrera publikoetan, eta berehala, gainera: administrazioen gasturako ahalmena murrizten du eta, ondorioz, politika publikoak finantzatzeko ahalmena eta ondasun publikoak edukitzeko aukerak urritzen ditu. Gainera, beste ondorio batzuk ere baditu, eta horietako bat oso garrantzitsua da: zerga sistemen ekitatea hausten du, eta horrek sistema horiek ospea narriatzen du. Horrenbestez, ezinbestekoak dira zerga iruzurrari aurre egiteko politikak eta estrategiak, eta horien eraginkortasuna sendotzeko zerga administrazioaren arloan eskumenak dauzkaten erakundeen arteko aliantzak ezarri behar dira eta beren arteko lankidetza harremanak sendotu behar dira.

III. Lurralde historiko bakoitzaren zergen foru arau orokorrean xedatzen da zerga administrazioek zerga iruzurraren kontra borrokatzeko edo zergak egiaztatzeko plana egin behar dutela aldian-aldian. 2016ko planetan iruzurraren kontra egiteko ezartzen ziren prebentzio jarduketetan honako ildo honi eman zitzaion lehentasuna: urte anitzeko proiektu bat abian jartzea, eskudiru ugari erabiltzen duten jarduera sektore jakin batzuetako kutxa erregistratzaileetan kontrol sistemak ezartzea ahalbidetzen duena, ELGAren 2013ko urriko "Salmenten ezabaketa elektronikoa: zerga sarreretarako mehatxua" izenburuko azterlanean bildutako gomendioen arabera eta gure inguruko beste herrialde batzuetako esperientzia kontuan edukita. Halaber, 2017ko eta 2018ko planetako prebentzio ekintzen artean proiektu honen iraunkortasuna berresten zen, eta zehazten zen diseinua aurreratu behar zela eta soluzio teknologikorik egokiena hautatu behar zela eta hori ezartzeko araudietan egin beharreko aldaketak proposatu behar zirela, besteak beste.

IV. Beste alde batetik, Eusko Legebiltzarrak 2013ko irailaren 26ko osoko bilkuran onartu zuen 6. ebazpenean ezartzen zuen beharrezkoa zela: "iruzur fiskalaren kontra borrokatzeko batzorde bat sortzea. Hiru lurralde historikoen eta Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzearekin, Batzordearen ardura izango da Iruzurraren kontrako Borrokarako Plan Bateratua egitea, Zerga Koordinaziorako

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Organoaren barruan". Gainera, hauxe ezartzen zuen: "Iruzurraren kontrako Borrokarako Batzordea teknikoa izango da; lau kide ariko dira: bat Eusko Jaurlaritzakoa izango da eta ogasunaren arloko eskumena daukan saileko titularrak izendatuko du; foru aldundiek ordezkari bana eduki dute, ogasuneko foru diputatuak ikuskapen zerbitzuetako finantza ikuskatzaileen artean hautatua". Legebiltzarraren ebazpen hori betetzeko, EZKOk (Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru aldundien ordezkariak biltzen diren organoa; organo hau maiatzaren 30eko 3/1989 Legeak, zergapideen elkar egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunekoak, arautzen du 16. eta 17. artikuluetan) Zerga Iruzurraren aurka Borrokatzeko EAEko Batzordea sortzea erabaki zuen 2013ko urriaren 14an. Eusko Legebiltzarraren ebazpenean ezartzen denaren ildotik jarraituta, Iruzurraren kontrako Borrokarako Plan Bateratuaren irizpide orokorrak zehaztu behar dira, bai eta foru aldundiek koordinaturik egin beharreko jarduketak ere bai. Aldundien jarduketa horien artean honako hauek egon behar dira ezinbestean: informazioa eskuratzeko ekintzak, prebentzio ekintzak eta erregularizazio eta kobrantza ekintzak. Foru aldundien planetan ezartzen diren prebentzio jarduketekin bat etorriz, EAEko zerga iruzurraren kontrako borrokarako 2016, 2017 eta 2018ko plan bateratuetan aurreko puntuan aipatzen den urte anitzeko proiektua sartu da. Gainera, 2018ko Planean aukera modura ezartzen da azter litekeela estrategia globala datozen bi urteetan fakturazio eta kobrantzako gailuak kontrolatzeko neurriak jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisiko eta juridiko guztietara hedatzeko; helburua fakturazioaren inguruko informazioaren integritatea eta zerga administrazioei behar bezala bidaltzea bermatzea da.

V. Nafarroako Zerga Ogasuna ere bat dator Eusko Jaurlaritzarekin eta foru aldundiekin, eta lehentasuntzat du zerga iruzurraren kontrako borrokaren eraginkortasuna hobetzea, eta uste du horretarako ezinbestekoa dela zerga administrazioen arteko lankidetza gehitzea. Zerga Kontrolerako 2018ko Planean, aurreko planetan bezala, honako jarduketa ildo berezi hau ezartzen zen: aztertzea ea aukerarik dagoen zerga iruzurra gertatzeko arrisku handia dagoen jarduera sektore batzuetako saltokietako terminalak eta salmenta kutxak kontrolatzeko nahitaezko sistema ezartzeko; sistemak honako bi helburu hauek edukiko ditu: egiten diren transakzio guztiak behar bezala erregistratzen direnez egiaztatzea eta informazio modu seguruan helaraztea zerga administrazioari.

VI. Egoera horretan dela, foru aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Zerga Ogasunak lantalde bat eratu dute bost erakundeetako teknikariekin. Taldearen lehen helburua da aztertzea ea ezar daitekeen tresnaren bat azken kontsumitzaileei saltzen zaizkien ondasunen edo egiten zaizkien zerbitzuen prezioa eskudirutan kobratu ohi den jarduera sektoreetako salmenta erregistroen manipulazioa eragozteko edo murrizteko, hau da, zerga administrazioek erregistro horiek kontrolatzeko eta eskuratzeko erabil dezaketen tresnaren bat; gero, azterketaren emaitzen arabera, tresna hori garatu eta ezarriko litzateke. Lantaldea eratu zen bileran (2016ko uztailaren 19an) erabaki zen proiektuaren izena TicketBAI – TicketSÍ izango zela. Marka hori erregistratu da, eta horri esker proiektua sustatzen duten erakundeek identifikaziorako adierazgarri modura erabiltzeko eskubide esklusiboa dute.

VII. Fakturazio eta kobrantzako sistemak kontrolatzeko tresnak aztertzeko eta bultzatzeko erakundearteko proiektua gauzatzeko ezinbestekoa izango da hainbat jarduketa egitea koordinatzea, bai erakunde sustatzaileen beren baliabideekin, bai kanpoko baliabideekin. Uste da laguntza teknikoa eta aholkularitza emango dituen zerbitzua kontratatu behar dela, batez ere soluzio teknologiko eraginkorrena zehazteko eta hautatzeko. Gainera, erakunde bakoitzak proiektuan zehar aurreikuspenen arabera egin beharko diren lanetan nola hartuko duen parte eta lan horien finantzaketan nolako partaidetza edukiko duen zehaztu behar da (proiektuaren barruan hitzarmen hau sinatu aurretik egindako lanak ere sartuko dira finantzaketa horretan).

VIII. Administrazio publikoen arteko harremanetan lankidetza nagusi izan behar denez gero, eta herritarren zerbitzuan eraginkortasunarekin jardun behar dutela aintzat hartuta, hitzarmen hau sinatzen duten erakundeek uste dute arautu egin behar dutela nola ariko diren lankidetzan hizpide dugun proiektuan: sarrerak ezkutatzeko joera dagoen jarduera sektoretan, hau da, azken kontsumitzaileei saltzen zaizkien ondasunen edo egiten zaizkien zerbitzuen prezioa eskudirutan

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

kobratu ohi den sektoretan, sortzen diren sarrerak kontrolatzeko zerga administrazioak erabili ahal izango duen sistema (lege baldintzak eta baldintza teknikoak) ezartzeko aukera aztertzea eta sistema hori bultzatzea.

ARTIKULU BAKARRA

Lehenengoa eta bakarra. Honako hitzarmen hau berresten da: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundien arteko hitzarmena Ticket Bai proiektua garatzeko (fakturatzeko eta kobratzeko sistemak kontrolatzeko tresnak aztertzeko eta ezartzeko proiektua).

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 19a

Presidentea
PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN, NAFARROAKO ZERGA OGASUNAREN ETA ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO FORU-ALDUNDIEN ARTEKOA, FAKTURAZIO- ETA KOBRANTZA-SISTEMAK KONTROLATZEKO TRESNEN AZTERKETARI ETA EZARPENARI BURUZKO PROIEKTUA GARATZEKO DENA (TICKET BAI / TICKETSI-BAI PROIEKTUA).

....., ...(e)ko ..... aren ....(a).

BILDU DIRA:

Pedro María Azpiazu Uriarte jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean eta haren ordezkari gisa, Ogasun eta Ekonomiako sailburu den aldetik.

Luis Esáin Equiza jauna, Nafarroako Zerga Ogasunaren izenean eta haren ordezkari gisa, organismo autonomo horren zuzendari kudeatzaile den aldetik.

José Luis Cimiano Ruiz jauna, Arabako Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru-diputatu den aldetik.

José María Iruarrizaga Artaraz jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa, Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatu den aldetik.

Jabier Larrañaga Garmendia jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru-diputatu den aldetik.

Alderdiek hitzarmena sinatzeko behar den gaitasun juridikoa onartu diote elkarri eta, hori dela bide, hauxe

AZALTZEN DUTE:

I. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 48. artikuluan ezartzen du administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, hitzarmenak sinatu ahalko dituztela zuzenbide publikoko eta pribatuko subjektuekin eta, hitzarmenak sinatuz, besteak beste, kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko dela, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu eta erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezen lagundu.

CONVENIO ENTRE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, LA HACIENDA TRIBUTARIA DE NAVARRA Y LAS DIPUTACIONES FORALES DE ÁLAVA, BIZKAIA Y GIPUZKOA PARA EL DESARROLLO DE UN PROYECTO CONSISTENTE EN EL ESTUDIO E IMPLANTACIÓN DE INSTRUMENTOS DE CONTROL DE LOS SISTEMAS DE FACTURACIÓN Y COBRO - PROYECTO TICKETBAI / TICKETSI-BAI

En ……., a …….

REUNIDOS

D. Pedro María Azpiazu Uriarte, en nombre y representación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en su condición de Consejero de Hacienda y Economía.

D. Luis Esáin Equiza, en nombre y representación de la Hacienda Tributaria de Navarra, en su condición de Director Gerente de dicho organismo autónomo.

D. José Luis Cimiano Ruiz, en nombre y representación de la Diputación Foral de Álava, en su condición de Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

D. José María Iruarrizaga Artaraz, en nombre y representación de Diputación Foral de Bizkaia, en su condición de Diputado Foral de Hacienda y Finanzas.

D. Jabier Larrañaga Garmendia, en nombre y representación de Diputación Foral de Gipuzkoa, en su condición de Diputado Foral de Hacienda y Finanzas.

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente Convenio y en su virtud

EXPONEN

I. La Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, establece en su artículo 48, que las Administraciones Públicas, en el ámbito de sus respectivas competencias, podrán suscribir convenios con sujetos de derecho público y privado y que la suscripción de convenios deberá, entre otras cosas, mejorar la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, y contribuir a la realización de actividades de utilidad pública.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

II. Iruzur fiskalak —alegia, arauen ez-betetzea zerga-ordainketa ekiditeko asmoarekin— zuzeneko eta berehalako eragina du dirusarrera publikoetan, administrazioen gastu-ahalmena murrizten baitu, eta, ondorioz, politika publikoak finantzatzeko ahalmena eta ondasun publikoak hornitzeko aukerak gutxitzen baititu. Baditu beste eragin batzuk ere; horietako bat, garrantzi handikoa, zerga-sistemetan eragiten duen ekitate-printzipioaren haustura, eta, haren ondorioz, sistema horien ospea galtzeko arriskua. Testuinguru horretan, eztabaidaezinak dira iruzur fiskalari aurre egiteko politikak eta estrategiak, zeinen efikazia sendotu egingo baita zerga-administrazioaren eremuan eskumenak dituzten erakundeen artean itunak eginez eta lankidetza-loturak estutuz.

III. Lurralde historiko bakoitzaren Zergen Foru Arau Orokorrak xedatzen du zerga-administrazioek Iruzurraren Kontra Borrokatzeko edo Zergak Egiaztatzeko Plana taxutu behar dutela aldian behin. Iruzurraren kontra borrokatzeko 2016ko planetan, prebentzio-jardueren atalean, lehentasunezko jardun-lerro hau zehaztu zen, besteak beste: urte anitzeko proiektu bat abian jartzea, zeinari esker eskudiru asko erabiltzen duten jarduera-sektore jakin batzuetan kutxa erregistratzaileak kontrolatzeko sistemak ezarri ahalko baitira, Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) 2013ko urriko ikerlanean («Salmenten ezabapen elektronikoa: zerga-sarreretarako mehatxu bat» deritzon horretan) jasotako gomendioekin bat eta kontuan hartuta gure inguruko beste herrialde batzuen esperientzia. Horrez gain, 2017ko eta 2018ko planen prebentzio-ekintzek proiektuaren jarraitutasuna berresten dute; izan ere, jasotzen dute proiektuaren diseinuan aurrera egingo dela, konponbide teknologiko aproposena aukeratuko dela eta hura ezartzeko beharrezkoak diren araudi-aldaketak proposatuko direla.

IV. Eusko Legebiltzarrak 2013ko irailaren 26ko osoko bilkuran 6. ebazpena onartu zuen, eta haren bidez «beharrezkotzat jotzen du Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Batzordea sortzea, Iruzurraren kontrako Borrokarako Plan Bateratua prestatzeaz arduratuko dena, hiru lurralde historikoen eta Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzearekin, Zerga Koordinaziorako Organoaren barruan». Ebazpen horren arabera, «Iruzurraren kontrako Borrokarako Batzordea batzorde teknikoa izango da eta 4 kidek osatuko

II. El fraude fiscal –incumplimiento de la norma con ánimo de eludir el pago de impuestos– tiene un efecto directo e inmediato en los ingresos públicos, reduciendo la capacidad de gasto de las Administraciones y, en consecuencia, minorando la capacidad de financiar las políticas públicas y la posibilidad de proveer bienes públicos. Tiene además otros efectos, uno muy importante, la quiebra del principio de equidad que causa en los sistemas tributarios y, derivado de ella, el riesgo de desacreditación de estos sistemas. En este contexto, son incontestables las políticas y estrategias para combatir el fraude fiscal, cuya eficacia se verá reforzada forjando alianzas y estrechando lazos de cooperación entre las instituciones competentes en el ámbito de administración tributaria.

III. La Norma Foral General Tributaria de cada uno de los Territorios Históricos dispone que las Administraciones tributarias elaboren periódicamente un Plan de lucha contra el fraude o de comprobación tributaria. Entre las actuaciones preventivas de lucha contra el fraude recogidas en sus respectivos Planes, correspondientes a 2016, se incluyó entre las líneas de actuación prioritarias la puesta en marcha de un proyecto plurianual que permita la implantación de sistemas de control de las cajas registradoras en determinados sectores de actividad que son intensivos en el manejo de dinero en efectivo, de acuerdo con las recomendaciones contenidas en el estudio de la OCDE de octubre de 2013 “Supresión electrónica de ventas: una amenaza para los ingresos fiscales” y teniendo en cuenta la experiencia de otros países de nuestro entorno. Asimismo, entre las acciones preventivas de los Planes de 2017 y 2018 se reafirma la continuidad de este proyecto especificando que se avanzará en el diseño del mismo y se concretarán, entre otros extremos, la elección de la solución tecnológica que se considere más adecuada y la propuesta de las modificaciones normativas necesarias para su implantación.

IV. Por su parte, el Pleno del Parlamento Vasco, en sesión celebrada el día 26 de septiembre de 2013, aprobó la Resolución número 6 por la que “considera necesaria la Creación de la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal, encargada de elaborar el Plan Conjunto de lucha contra el fraude, con la participación de los tres Territorios Históricos y el Gobierno Vasco, en el seno del Órgano de Coordinación Tributaria”. Determina además que “la Comisión de Lucha contra el Fraude tendrá carácter técnico y estará

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

dute: Eusko Jaurlaritzako kide bat, Ogasunaren arloko sail eskuduneko titularrak izendatua, eta foru-aldundi bakoitzeko kide bat, Ogasun Saileko foru-diputatuak izendatua ikuskaritza-zerbitzuetan lan egiten duten finantza-ikuskarien artetik». Legebiltzarraren ebazpen hori betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Batzordea sortu zuen Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak, 2013ko urriaren 14ko erabakiz —organo horrek Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien ordezkaritza du, eta Zergapideen elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunari buruzko maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen 16. eta 17. artikuluetan arautua dago—. Eusko Legebiltzarraren ebazpenean xedatutakoari jarraituz, Iruzurraren kontrako Borrokarako Plan Bateratua egiteko, irizpide orokor batzuk eta foru-aldundiek egin behar dituzten jarduketak zehaztu behar dira, zeinen artean egongo baitira informazioa lortzeko ekintzak, prebentzioaren gainekoak eta erregularizatze- eta kobrantza-ekintzak. Foru-aldundien planetan ageri diren prebentzio-jarduketen ildotik, Euskal Autonomia Erkidegoko iruzur fiskalaren kontrako borrokarako 2016ko, 2017ko eta 2018ko plan bateratuetan ere jasota geratu da aurreko atalean adierazi den urte anitzeko proiektua. 2018ko planean, gainera, estrategia orokor baten azterketa aurreikusten da, datozen urteetan fakturazio- eta kobrantza-gailuak kontrolatzeko neurri sorta hori ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztietara hedatzeko helburua duena, betiere fakturazioari buruzko informazioaren osotasuna eta hura zerga-administrazioari helarazten zaiola bermatzeko moduan.

formada por 4 miembros: 1 del Gobierno Vasco designado por el titular del Departamento competente en materia de Hacienda y 1 por cada Diputación Foral designados por el respectivo Diputado Foral de Hacienda de entre las inspectoras e inspectores de finanzas destinados en los respectivos servicios de inspección". Dando cumplimento de esta Resolución parlamentaria, mediante acuerdo del OCTE –Órgano con representación del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales regulado en los artículos 16 y 17 de la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal– de fecha 14 de octubre de 2013, se creó la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal del País Vasco. La elaboración del Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude, siguiendo asimismo lo preceptuado por la Resolución del Parlamento Vasco, se debe realizar determinando sus criterios generales, así como las actuaciones coordinadas a realizar por las Diputaciones Forales, que en todo caso contendrán acciones de obtención de información, acciones preventivas y acciones de regularización y cobro. En línea con las actuaciones preventivas incluidas en los respectivos Planes de las Diputaciones Forales, en los Planes Conjuntos de Lucha contra el Fraude Fiscal del País Vasco de los años 2016, 2017 y 2018 se ha incluido el proyecto plurianual referido en el expositivo anterior. El Plan de 2018 incluye además la previsión del estudio de una estrategia global que permita, durante los próximos años, extender este tipo de medidas de control de dispositivos de facturación y cobro a todas las personas físicas y jurídicas que ejerzan actividades económicas, de manera que se garantice la integridad de la información sobre facturación y su transmisión a las Administraciones Tributarias.

V. Nafarroako Zerga Ogasuna bat dator Eusko Jaurlaritzarekin eta foru-aldundiekin lehentasunezko helburu batean —alegia, zerga-iruzurraren kontrako borrokaren efikazia eta efizientzia handitu beharra dagoela— eta, horretarako, ezinbestekotzat jotzen du zerga-administrazioen arteko elkarlana areagotzea. Nafarroak taxutu duen Zergen Kontrolerako 2018ko Planean bada jarduera-ildo espezifiko bat, aurreko planetan esandakoaren bide beretik doana, iruzur fiskala egiteko arrisku handia duten jarduera-sektore jakin batzuetako salmenta-puntuetako terminalak eta kutxa erregistratzaileak nahitaez kontrolatzeko sistema bat ezartzeko aukera jasotzen duena, bi helburu lortzeko: batetik, transakzio guztiak zuzen erregistratzen direla egiaztatzeko, eta,

V. La Hacienda Tributaria de Navarra comparte con el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales el objetivo prioritario de aumentar la eficacia y eficiencia en la lucha contra el fraude tributario, y considera imprescindible para ello intensificar la colaboración entre las distintas Administraciones Tributarias. En su Plan de Control Tributario para 2018, en línea con lo ya apuntado en anteriores Planes, se recoge como línea de actuación específica el estudio de la posibilidad de implantar un sistema de control obligatorio sobre terminales puntos de venta y cajas registradoras en determinados sectores de actividad con alto riesgo de fraude fiscal, con el doble objetivo de verificar el correcto registro de todas las transacciones realizadas y comunicar de forma segura la información a la

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

bestetik, Zerga Administrazioari informazioa bide seguruetatik jakinarazteko.

VI. Horiek horrela, foru-aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Zerga Ogasunak lantalde tekniko bat osatu dute, bost erakundeen parte-hartzearekin. Lantaldearen lehenengo helburua da aztertzea zer aukera dagoen azken kontsumitzaileari ondasunak saltzen edo zerbitzuak ematen dizkieten jarduera-sektoreetan, eskudirutan kobratu ohi dutenetan, salmenta-erregistroen manipulazioa minimizatu edo galarazten duten tresnak ezartzeko, betiere zergen arloko foru-administrazioek erregistro horietarako kontrola eta irispidea izanik. Behin hori eginda, lantaldearen bigarren helburua izango da, azterketaren emaitzen arabera, tresna horiek garatzea eta ezartzea. Lantaldea eratzeko bilkura 2016ko uztailaren 19an egin zen, eta proiektuaren izena erabakita geratu zen: TicketBAI / TicketSI-BAI. Marka hori erregistratuta dago, eta, ondorioz, proiektua sustatu duten erakundeek identifikazio-zeinu hori erabiltzeko eskubide esklusiboa dute.

VII. Fakturazio- eta kobrantza-sistemak kontrolatzeko tresnak aztertzeko eta haien ezarpena bultzatzeko erakundearteko proiektua garatuko bada, zenbait jarduketa egin behar dira denen artean koordinatuta; kasu batzuetan, erakunde parte-hartzaileen baliabide propioak erabiliz, eta, beste alderdi batzuetarako, kanpoko baliabideetara joz. Komeni da laguntza teknikoko eta kontsultarako zerbitzu bat kontratatzea; batez ere, konponbide teknologikoko efizienteena finkatu eta definitu ahal izateko. Bestalde, zehaztuta utzi behar da erakunde bakoitzak zer baldintzatan parte hartuko duen proiektua garatzen den bitartean egin daitezkeen jarduketen exekuzioan eta finantzaketan; halaber, hitzarmena sinatu baino lehen jarduketak egin badira proiektuaren eremuan, halakoen finantzaketari buruzko alderdiak ere zehaztu behar dira.

VIII. Administrazio publikoen arteko elkarlan, koordinazio eta lankidetza aurreikusten dituzten arauak kontuan hartuta eta haien jardunak efizientzia-printzipioan eta herritarrentzako zerbitzuaren printzipioan oinarrituta egon behar duela, alderdi sinatzaileek beharrezkotzat jo dute araututa uztea zein izango diren proiektu bateratuan ordezkaritza duen erakunde bakoitzaren partaidetza- eta elkarlan-baldintzak; proiektu horri esker, betebehar legalak eta teknikoak arautzen dituen sistema baten

Administración Tributaria.

VI. En el contexto descrito, Diputaciones Forales y Gobierno Vasco, junto con la Hacienda Tributaria de Navarra, han constituido un grupo de trabajo conformado por un equipo técnico con participación de las cinco instituciones cuyo primer objetivo consiste en estudiar la posibilidad de implantar instrumentos que minimicen o imposibiliten la manipulación de los registros de ventas en los sectores de actividad que venden bienes o prestan servicios al consumidor final y cobran habitualmente en efectivo, permitiendo a las administraciones tributarias forales el control y acceso a dichos registros, para posteriormente, en función del resultado del estudio, impulsar el desarrollo e implantación de los referidos instrumentos. En su reunión constitutiva, de 19 de julio de 2016, el grupo de trabajo acordó que la denominación identificativa del proyecto sea TicketBAI / TicketSI-BAI. Se ha registrado esta marca de tal manera que las instituciones promotoras del proyecto tengan el derecho exclusivo a la utilización de su signo de identificación.

VII. El desarrollo del proyecto interinstitucional del estudio e impulso de la implantación de los referidos instrumentos de control de los sistemas de facturación y cobro requerirá diversas actuaciones que han de acometerse de forma coordinada, tanto con recursos propios de las instituciones participantes, como en algunos aspectos con recursos externos. Se considera conveniente la contratación de un servicio de asistencia técnica y consultoría, en particular respecto a la determinación y definición de la solución tecnológica más eficiente. Adicionalmente, se han de prever las condiciones de participación de cada institución en la ejecución y financiación de las distintas actuaciones que es factible deban realizarse a lo largo del desarrollo del proyecto, inclusive en relación con la financiación de actuaciones enmarcadas en el proyecto que hubieran sido realizadas con carácter previo a la suscripción del presente convenio.

VIII. Atendiendo a los principios de cooperación, colaboración y coordinación entre las administraciones públicas, así como a los de eficiencia y servicio a la ciudadanía que han de regir sus actuaciones, las partes firmantes consideran necesario regular las condiciones de participación y colaboración de cada una de las instituciones representadas en el proyecto común del estudio e impulso de la implantación de un sistema regulatorio de obligaciones legales y técnicas que permitan a la

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ezarpena aztertu eta bultzatuko da, halako eran non zerga-administrazioak aukera izango baitu jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisiko eta juridikoen diru-sarrerak kontrolatzeko.

Horregatik guztiagatik, alderdiek hitzarmen hau sinatzen dute, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea eta aplikazio-eremua.

1. Hitzarmenaren xedea da definitzea alderdiek zer partaidetza- eta elkarlan-araubide izango duten fakturazio- eta kobrantza-sistemak kontrolatzeko tresnak aztertzeko eta, hala badagokio, haien ezarpena oro har bultzatzeko TICKETBAI/TICKETSI-BAI deitutako proiektu bateratuaren garapenari dagokionez.

2. Hitzarmenaren babesean geratuko dira alderdiek Jarraipen Batzordean xede hori erdiesteko adosten dituzten ekimenen antolamendua, diseinua, gauzatzea eta finantzaketa —batzorde hori zazpigarren klausulan aurreikusia dago—.

3. Hitzarmenaren ondoreak honako jarduketa hauetara zabalduko dira:

a) Iruzurra kontrolatzeko sistemei buruzko kontsulta-zerbitzuaren eta aholkularitza estrategikoko eta bulego teknikoko (konponbide-proposamena) zerbitzuaren kontratazioa; Bizkaiko Foru Aldundia, 189.668 euro. Zenbateko hori baterako jarduketetarako parte-hartze finantzarioko arauen arabera finantzatuko da —hirugarren klausulan jasotako arauak—.

b) «TicketSI-BAI» eta «TicketBAI» Europar Batasuneko markak EAEko Administrazioaren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien eta Nafarroako Zerga Ogasunaren izenean erregistratzeak berekin dakarren kostua, 4.969,80 euro, zeina EAEko Administrazioak ordaindu baitu dagoeneko.

c) Konponbide-proposamenaren bideragarritasun teknikoa egiaztatzeko kontzeptu-proba jakin batzuk egite aldera, aholkularitza estrategikoko eta bulego teknikoko zerbitzuaren kontratazioa; Bizkaiko Foru Aldundia, 22.494 euro.

4. Nafarroako Zerga Ogasunak «TicketSI-BAI» proiektuan izango duen parte-hartzea klausula honen aurreko apartatuko a) eta b) letretan

Administración tributaria el control de los ingresos de todas las personas físicas y jurídicas que ejercen actividades económicas.

Por todo ello, las partes firmantes suscriben este Convenio con arreglo a las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto y ámbito de aplicación del Convenio

1. El presente Convenio tiene por objeto definir el régimen de participación y colaboración de las partes en el desarrollo del proyecto conjunto del estudio y en su caso impulso de la implantación con carácter general de instrumentos de control de los sistemas de facturación y cobro, proyecto denominado TICKETBAI/TICKETSI-BAI».

2. El Convenio amparará la organización, diseño, ejecución y financiación de todas las iniciativas encaminadas a dicho objeto que las partes intervinientes acuerden en el seno de la Comisión de seguimiento prevista en la cláusula séptima siguiente.

3. El Convenio extenderá sus efectos a las actuaciones que se señalan a continuación:

a) la contratación de un servicio de consultoría sobre sistemas de control antifraude, asesoramiento estratégico y oficina técnica (propuesta de solución) por parte de la Diputación Foral de Bizkaia con un coste de 189.668 euros, que será financiado de acuerdo con las reglas de participación financiera en las actuaciones conjuntas previstas en la cláusula tercera.

b) el coste derivado del registro de las marcas de la Unión Europea “TicketSI-BAI” y “TicketBAI”, a nombre de la Administración de la CAE, Diputación Foral de Álava, Diputación Foral de Bizkaia, Diputación Foral de Gipuzkoa y Hacienda Tributaria de Navarra, previamente satisfecho por la Administración de la CAE por un importe de 4.969,80 euros.

c) la contratación, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia del servicio de asesoramiento estratégico y oficina técnica, en relación con la ejecución de determinadas pruebas de concepto para chequear la viabilidad técnica de la propuesta de solución, con un coste de 22.494 euros.

4. La participación de la Hacienda Tributaria de Navarra en el proyecto “TicketSI-BAI” concluye con las actuaciones conjuntas descritas en las

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

adierazita dauden baterako jarduketekin amaituko da; guztizko kostua 194.637,80 euro da, eta hirugarren klausulan ezarrita dagoenaren arabera ordainduko da.

5. Nafarroako Zerga Ogasunak geroko baterako jarduketetan parte hartu nahi izanez gero, Jarraipen Batzordeak —zazpigarren klausulan aipatua berau— aho batez hartu beharko du horri buruzko erabakia, hitzarmen honetako gainerako klausulei men eginda.

BIGARRENA.- Parte-hartzearen eta elkarlanaren modalitateak.

